2020ko abenduan, Kultura Ondarearen Zentroaren webgune berria ezagutarazi zen. Bertan, zegoen informazioa eguneratzeaz gain, eduki ugari eta oso interesgarriak sartu dira, batez ere industria-ondareari eta ondare immaterialari buruzkoak.

*En diciembre de 2020 se dio a conocer la nueva Web del Centro de Patrimonio Cultural en la que, además de actualizar la información que existía, se han incorporado abundantes y muy interesantes contenidos, sobre todo de patrimonio industrial e inmaterial.*

Donejakue Bidearen inguruko jarduketen kudeaketarekin jarraitu da aurten ere, Bidearen bideragarritasuna bermatzen duten jarduketak kontrolatzetik hasita, inplikatutako agente guztiekin (Segurtasuna, Osasuna, Turismoa, etab.) egin diren mahai sektorialen koordinazioara iritsi arte.

*Se continua un año más con la gestión de actuaciones en torno al Camino de Santiago, desde el control de actuaciones que aseguren la viabilidad del mismo, a la coordinación de mesas sectoriales con los diversos agentes implicados: Seguridad, Sanidad, Turismo etc.*

Testuinguru honetan, akordio bat sinatu da MIE Prefekturarekin (Japonia), Munduko Ondare diren erromesen bideen (Kumado Kodo) elkarlanerako eta elkartrukerako. 2020. urte honetan, Santiagoko Bideari buruzko erakusketa bat egin da MIEko prefekturan. Erakusketa horren edukiak eta materiala Kultura

*En este marco se ha firmado un acuerdo con la Prefectura de MIE (Japón), para la cooperación e intercambio de rutas de peregrinación de Patrimonio Mundial (Kumano Kodo). Este año de 2020 se ha concretado en la realización de una exposición sobre el Camino de Santiago en la prefectura de MIE cuyos contenidos y material se han elaborado en el*

Ondarearen Zentroan egin dira. Erakusketa abenduan inauguratu zen eta 2021eko martxora arte egongo da zabalik.

*Centro de Patrimonio Cultural. Esta exposición se ha inaugurado en diciembre pasado y permanecerá abierta a la visita hasta marzo de 2021.*

Beste urte batez, Sailaren plaka ofizialarekin, deklaratutako monumentuak seinaleztatzen jarraitu dugu. Horri esker, informazioa eskaintzeaz gain, jabeekin eta horien kontserbazio- eta kudeaketa-arduradunekin harremanetan jar gaitezke, haien pertzeptzioa hobetuz.

*Un año más se continúa la labor de señalización de los monumentos declarados con la placa oficial del Departamento, lo que, además de ofrecer información, nos permite ponernos en contacto con sus propietarios y responsables de su conservación y gestión, mejorando la percepción de los mismos.*

Era berean, Zorrozaurren (Bilbo) dagoen Konsoni Industria Ondare higigarriaren Gordailu Zentrora bisitak egiteko urteko programarekin jarraitzen da. Hala ere, 2020an, osasun-krisia zela eta, martxoan aurrez aurreko programa itxi zen, eta bildumako piezen bisita birtualen webgunean gune bat sortzea erabaki zen.

*Así mismo, se ha continuado con el programa anual de visitas al Centro de depósito mueble de Patrimonio Industrial-Konsoni, en Zorrozaurre (Bilbao). Este año de 2020 sin embargo, debido a la situación de crisis sanitaria, en marzo se cerró el programa presencial, optando por crear un espacio en la web de visitas virtuales de piezas de la colección.*

Aurten ere jarraitu dugu 2.0 Zabalpen planarekin, Euskadin Europako Ondarearen Jardunaldietan parte-hartzea sustatzeko. Aurten plana web-orri batean, Facebook eta Instagram bidez aurrera eraman da. Joan den urteko helburuak lortu dira, eta horrez gain sare batean kanal bat berrireki da eta hiru lurraldeetan programatutako ekintza kopuru handia sustatu da.

*Un año más se ha continuado con el Plan de difusión 2.0 para fomentar la participación en las Jornadas Europeas de Patrimonio en Euskadi. Este año el plan se ha desarrollado a través de una página web, Facebook e Instagram. Se han logrado los objetivos del año anterior, además de reabrir un canal en red, y promocionar un gran número de actividades programas en los tres territorios.*

Arkeoikuska argitaratzen jarraitu da, 2019. urtekoa hain zuzen ere, paperean.

*Se ha proseguido con la publicación de Arkeoikuska, correspondiente al año 2019, en papel.*

f) Laguntza izendun eta zuzenekoak.

*f) Ayudas nominativas y directas.*

Aurten ere laguntza izendun hauekin jarraitu da:

*Un año más se conceden estas ayudas nominativas:*

- Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, urteko programa garatzeko eta ikerketa bekentzako.
- Santa Maria Katedrala Fundazioa, Katedralaren Plan Zuzentzailea egikaritzen jarraitzeko.
- Añanako Gatz Haranaren Fundazioa, Gatzagen Plan Zuzentzailea egikaritzen jarraitzeko: Gatz Haranaren berreskuratzea, paisaiarena eta funtzionala.
- Euskal Herriko Unibertsitatea. Kultura Paisaiak eta Ondarea Katedra.
- Eboluzio Kulturalaren Euskal-Saharar Elkartea, arkeologia-ikerketen kanpaina berria garatzeko eta emaitzen argitalpen berri bat egiteko.
- Aranzadi Zientzia Elkartea, bere urteko jarduerak egiteko.
- Labayrurentzako dirulaguntza ez da izapidetu, zeina Etniker Euskalerria taldeen Euskadiko Atlas etnografikoa egitera bideratuta dagoen.

*- Fundación José Miguel de Barandiaran, para el desarrollo de su programa anual y becas de investigación.*
*- Fundación Catedral de Santa María, para continuar con la ejecución del Plan Director de la Catedral.*
*- Fundación del Valle Salado de Añana, para continuar con la ejecución del Plan Director de las Salinas: recuperación paisajística y funcional del Valle Salado.*
*- Universidad del País Vasco. Cátedra Paisajes Culturales y Patrimonio.*
*- Asociación Vaco-Saharaui de la evolución cultural, para el desarrollo de nueva campaña de investigación arqueológica y elaboración de nueva publicación de los resultados.*
*- Sociedad de Ciencias Aranzadi.*
*- No se ha llegado a tramitar la subvención destinada a Labayru para elaborar el Atlas etnográfico de Euskadi de los grupos Etniker Euskalerria.*

g) Jendearentzako arreta.

*g) Atención al público.*

Arlo honetan Kultura Ondareari lotutako 438 kontsulta guztira artatu dira (Arabako 188, Bizkaiko 160, Gipuzkoako 69 eta EAEtik kanpokoak 21). Era berean, esportatzeko artelanen 6 ziurtagiri igorri dira eta arkeologia-materialen 40 piezetako multzo bat lekuz aldatzea baimendu da, laginak aztertzeko edo aldi baterako erakusketetan parte hartzeko.

*En este ámbito se han atendido un total de 438 consultas relacionadas con el Patrimonio Cultural (188 de Álava, 160 de Bizkaia, 69 de Gipuzkoa y 21 de fuera de la CAV). Además, se han expedido un total de 6 certificados de obras de arte para su exportación y se ha autorizado el traslado de un conjunto de 40 colecciones de materiales arqueológicos para el análisis de muestras o para su participación en exposiciones temporales.*

**2. EUSKADIKO MUSEOEN SISTEMA GARATZEA**

a) Euskadiko erreferentziazko museoetan parte hartu eta laguntzea.

Dirulaguntza izendunen kopurua mantendu dugu, baita museoek jasotzen duten diru kopurua ere. Gainera, pandemiaren larritasuna eta mugikortasun murrizketak direla- eta, ez ohiko deialdien bitartez museo horietako batzuentzako dirulaguntzak indartu ditugu.

b) Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan museo eta bilduma berrien inskribatzea sustatzea eta integratutako museoen jarduerak burutzen laguntzea.

2020 urtean ez da museo berririk inskribatu Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan, baina proiektu museistiko berriekin harremana mantendu da, etorkizun hurbilean inskribatu ahal izateko.

c) EMSIME-Euskadiko Museoen Sistema Informatikoa/Sistema Informatiko de Museos de Euskadi izeneko plataforman eta kudeaketa-tresnan museo eta bilduma berriak sartzea.

2020an bizitako ez ohiko egoera dela-eta, ez da museo berririk gehitu EMSIMEn, baina aplikazioaren hainbat modulu hobetu eta indartu dira, eta horrek epe laburrean hainbat museo sartzea ahalbideratuko du.

d) Euskadiko museoen sailkapena garatzea, eta Museo Etnografiko txikien eta Zientzia eta Teknika Museoen sareak sortzeko lehenengo urratsak ematea.

2019ko hausnarketak eta gero, 2020an ideiak eta aukerak beste erakunde publiko eta museoekin eztabaidatzeko unea zen. Pandemiaren ondorioz, eztabaidatzeko foro horien deialdia atzeratu egin ziren. Hala ere, museo etnografikoen sarea sortzeko aurrerapausoak eman dira eta hiru bilera telematiko egin dira.

e) Eusko Jaurlaritzaren artelanen bildumaren museo katalogoa bukatzea eta artelanen barne mugimenduak arautzeko protokoloa ezartzea.

Katalogorako testuak idatzi dira eta aukeratutako artelanetatik %75eren argazkiak atera dira. Geratzen diren %25en argazkiak ateratzeko egoitza batzuetara sartzeko baimena lortzeko eta artelan batzuk zaharberritzeko zain gaude.

f) Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan dauden museoetako batzuk “Euskadiko Museo” izendatzeko lehen urratsak eman eta Euskadiko Museo Sistema Nazionalean sakontzea.

Alor honetan, 2020 urteko egoera dela eta, ezin izan da aurrerapausorik egin. Hala ere, Aldundiekin harremanetan gaude haien titulartasunekoak diren museoak Erregistroan inskribatu ahal izateko. Honek Euskadiko museoen mapa argiago bat edukitzea ahalbideratuko du.

2020 urtean zehar Euskadiko museoek egiten dituzten ekintzak garatu eta zabaltzeko asmoz urtero ateratzen den

***2. DESARROLLO DEL SISTEMA DE MUSEOS DE EUSKADI***

*a) Participar y apoyar de manera especial a los museos de referencia de Euskadi.*

*Se han mantenido el número de subvenciones nominativas, así como la cuantía recibida por cada museo de referencia. Además, ante la gravedad de la situación debido a la pandemia y las restricciones de movilidad, se han reforzado las ayudas a algunos de estos museos mediante convocatorias extraordinarias.*

*b) Impulsar la inscripción de nuevos museos y colecciones en el Registro de Museos y Colecciones de Euskadi y apoyar las actividades de los museos integrados en dicho Registro.*

*En el 2020 no se ha inscrito ningún nuevo museo en el Registro de Museos y Colecciones de Euskadi, pero se ha mantenido el contacto con nuevos proyectos museísticos para poder inscribirlos en un futuro próximo.*

*c) Integrar en la plataforma y herramienta de gestión EMSIME-Euskadiko Museoen Sistema Informatikoa/Sistema Informático de Museos de Euskadi a nuevos museos y colecciones.*

*Debido a la extraordinaria situación sufrida en el 2020, no se ha integrado ningún museo nuevo en EMSIME, pero se han mejorado y reforzado algunos de sus módulos, permitiendo la incorporación de varios museos próximamente.*

*d) Desarrollar la clasificación de los museos de Euskadi, y dar los primeros pasos para crear una red de pequeños Museos Etnográficos, y otra de Museos de la Ciencia y de la Técnica.*

*Tras las reflexiones realizadas en el 2019, en el 2020 tocaba debatir las ideas y posibilidades con el resto de instituciones públicas y museos. Debido a la pandemia, las convocatorias de esos foros de discusión han sido pospuestas. A pesar de la situación, se han dado pasos en la creación de la red de museos etnográficos y se han hecho tres reuniones telemáticas con los museos etnográficos.*

*e) Realizar el catálogo museológico de la colección de obras de arte del Gobierno Vasco y establecer protocolos que regulen los movimientos internos de dichas obras de arte.*

*Se han elaborado los textos del catálogo y se han fotografiado el 75% de las obras seleccionadas. El 25% restante queda pendiente de permisos de acceso a algunas de las sedes y de la restauración de algunas de las obras.*

*f) Dar pasos para nombrar “Museo de Euskadi” algunos de los museos inscritos en el Registro de Museos y Colecciones de Euskadi y profundizar en el Sistema Nacional de Museos de Euskadi.*

*En este ámbito no se han podido dar pasos debido a la situación generada en 2020. Sin embargo, estamos en contacto con las Diputaciones para poder inscribir los museos de su titularidad en el Registro, lo que posibilitará una imagen más clara del mapa de los museos de Euskadi.*

*Se ha fortalecido la convocatoria de subvenciones de 2020 destinadas al desarrollo y difusión de las actividades*

dirulaguntza deialdia indartu da, 700.000 eurotik 780.000 eurora pasatuz. Aurreikusi bezala, 44 proiektu lagundu dira diruz, eta ekintza-ildoen banaketa aurreikusitakoaren antzekoa izan da.

*promovidas por los museos de Euskadi, pasando de 700.000 euros a 780.000. Tal y como se había previsto, se han subvencionado 44 proyectos, y la distribución por líneas de actuación ha sido similar a la prevista.*

## 3. DOKUMENTU ONDAREA KUDEATZEA ETA EUSKADIKO ARTXIBOEN SISTEMA GARATZEA

## *3. GESTIÓN DEL PATRIMONIO DOCUMENTAL Y DESARROLLO DEL SISTEMA DE ARCHIVOS DE EUSKADI*

a) Amaitu da dokumentu-kudeaketa integralaren eta artxiboen lege-aurreproiektuaren izapidea (Gobernantza Publiko eta autogobernu Sailarekin batera sustatzen da), eta Aholku Batzorde Juridikoari igorri zaio.

*a) Se ha concluido el trámite del Anteproyecto de Ley de gestión documental integral y archivos (que se promueve junto con el Departamento de Gobernanza Pública y autogobierno) y se ha remitido a la COJUA.*

Testu berritzailea eta asmo handikoa da. Alde batetik, Euskadiko Dokumentu Ondarearen babesa eta hedapena bermatzen du, baina arreta berezia eskaintzen dio ingurune digitaleko dokumentu-kudeaketari, gardentasunari eta herritarren sarbideari.

*Se trata de un texto innovador y ambicioso. Por una parte, garantiza la protección y difusión del Patrimonio Documental de Euskadi, pero dedica especial atención a la gestión documental en el entorno digital, la transparencia y el acceso ciudadano.*

b) Pandemiak 2020an ezarritako mugek, asko mugatu dute Artxiboan ekitaldi edo jarduera kulturalak egitea. Hala eta guztiz ere, 2020an, Euskadiko Artxibo Historikoak (AHE) kultur azpiegitura gisa 234 ekitaldi antolatu ditu edo horietan parte hartu du (bilerak, jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, aurkezpenak, etab.).

*b) Las limitaciones impuestas por la pandemia en 2020 han limitado mucho la celebración de eventos o actividades culturales en el Archivo. A pesar de ello, en 2020 el Archivo Histórico de Euskadi (AHE) ha organizado o participado como infraestructura cultural en la celebración de 234 eventos (reuniones, jornadas, conferencias, cursos, presentaciones, etc.).*

Kultura zabaltzeko jarduera nagusiak, "Bilbao en Mauthausen" liburuaren aurkezpena (85), Open House Bilbaon parte hartzea (90 bisitari jardunaldi batean) eta Ondareari buruzko Jardunaldien Europako Programan parte hartzea (26 pertsona) izan dira.

*Las actividades principales de difusión cultural han sido la presentación del libro “Bilbao en Mauthausen” (85), y la participación en Open House Bilbao (90 visitantes en una jornada) y en el Programa Europeo de las Jornadas de Patrimonio (26 personas).*

2020an, Euskadiko Artxibo Historikoak artxibo-funts baliotsuak eskuratzeko politikarekin jarraitu du, gordailuan nahiz dohaintzan: Ekin argitaletxearen artxibo bikain eta itzela, Buenos Airesetik berreskuratua; Diaz de Mendibil familiaren artxiboa, Santiago Zarranzen artxiboa, Schnell argazki-artxiboa, Federico Krutwig eta Txema Larrea artxiboa.

*En 2020 el Archivo Histórico de Euskadi ha continuado con su política de adquisición de valiosos fondos de Archivo, tanto en depósito como en donación: el magnífico y enorme archivo de la editorial Ekin, recuperado desde Buenos Aires; el archivo de la familia Diaz de Mendibil, archivo de Santiago Zarranz, archivo fotográfico Schnell, archivo Federico Krutwig y archivo Txema Larrea.*

Dokumentu-funtsak etengabe sartzen direnez, segurtasun-apalategi gurpildunak instalatu behar dira horretarako prestatutako biltegietan. 2020an bi biltegi bete dira, eta guztira 2,8 km apalategi gehiago daude.

*Este continuo ingreso de fondos documentales hace necesario instalar estanterías rodantes de seguridad en los depósitos preparados para ello. En 2020 se han llenado dos depósitos, con un aumento total del espacio disponible de 2,8 km de estanterías.*

c) 2020an, 'Dokuklik' en Euskadiko artxiboei eta dokumentu-ondareari buruz banatzen den informazioa aberasten jarraitu dugu. 33.500 erregistro deskribatzaile eta 133.000 irudi digital katalogatu eta sartu dira web-orrian, bai besteren funtsenak, bai artxiboaren beraren funtsenak. Bereziki, argazki fondoekin lan egin da: Saenz de Tejada, FOAT eta Germán Elorza artxiboekin; eta artxibo pertsonal, familiako eta udalekoekin: Jon Bilbao artxiboa, Arbelaiz, Murga eta Añorga familiak; Aita Otaño musikologoaren artxiboa. Andoain, Laudio, Derio eta Kanpezuko udalak.

*c) En 2020 hemos continuado enriqueciendo la información que se distribuye en ‘Dokuklik’ sobre los archivos y el Patrimonio Documental de Euskadi. Se han catalogado e incorporado a la página web 33.500 registros descriptivos y 133.000 imágenes digitales tanto de fondos ajenos como fondos propios del Archivo. Se ha trabajado sobre todo con fondos fotográficos: archivos Saenz de Tejada, FOAT y Germán Elorza; y fondos personales, familiares y municipales: archivo Jon Bilbao, familias Arbelaiz, Murga y Añorga; archivo del musicólogo Padre Otaño. Ayuntamientos de Andoain, Llodio, Derio, Campezo.*

2020an, webguneak 50.000 erabiltzaile izan ditu, eta 166.000 lan-saio sortu ditu, batez beste 22 minutukoak eta 3,8 milioi orrialde bisitatu dira. Erabiltzaileen bolumenak bere horretan jarraitzen badu ere, 2019ko datuekin alderatuta bisitatutako orrialdeen kopuruak %49,5 egin du gora, eta horrek erakusten du Badator bilatzailea, Euskadiko

*En 2020 el sitio web ha tenido 50.000 usuarios, que han generado 166.000 sesiones de trabajo con una media de 22 minutos y un total de 3,8 millones de páginas visitadas. Si bien el volumen de usuarios se mantiene, el número de páginas visitada en relación a 2019 ha crecido en un 49,5%, prueba de que el buscados Badator es un referente para la*

artxiboen ikerketarako erreferentea dela eta interes sozialeko ikerketa sustatzeko helburua lortzen dugula. Horretaz gain, artxiboak kontsulta-zerbitzua eskaintzen du, bai erabiltzaileen gelan, bai telefonoz edo posta elektronikoz. 2020an, 411 kontsulta pertsonalizatu artatu dira.

*investigación en los archivos de Euskadi y de que se consigue el objetivo de fomento de la investigación de interés social. Además de ello, el Archivo ofrece un servicio de consulta tanto en la sala de usuarios como por teléfono o email. En 2020 se han atendido un total de 411 consultas personalizadas.*

d) Ondare dokumentalaren zabalkundea ezinezkoa litzateke aurrez deskribatu, digitalizatu edota web atarian jarri barik. Horretarako, 2020an zehar EAHak Euskadiko Artxiboen Sistemari laguntzeko programekin jarraitu du, bi dirulaguntza deialdiren bidez: artxibo publikoena, udal artxibo-sistemetako funtsak antolatzeko eta mantentzeko eta funtsak digitalizatzeko (79 proiektu diruz lagundu dira aurkeztutako 99tik, 76 toki-entitate ordezkatzen dituztelarik); eta bestetik, publikoak ez diren artxiboena, hauek deskribatzeko eta digitalizatzeko (18 proiektu diruz lagundu dira aurkeztutako 24 programetatik, 16 entitate ordezkatzen dituztelarik). Diruz lagundutako lanen ondorioz sortutako materialen zati handi bat dokuklik-era pasatzen da.

*d) La difusión del Patrimonio Documental es imposible sin su descripción, digitalización e ingreso en el portal web. Para ello, el AHE ha continuado en 2020 con los programas de apoyo al Sistema de Archivos de Euskadi, a través de dos órdenes de subvención: una dirigida a entidades públicas para la organización de fondos y mantenimiento de sistemas de archivos municipales y entidades locales, así como digitalización de los fondos documentales (79 proyectos que representan a 76 entidades locales, de 99 presentados), y la convocatoria para descripción y digitalización de archivos no públicos (18 proyectos, que representan a 16 entidades, de 24 presentados). Una parte importante de los materiales generados como resultado de los trabajos subvencionados pasan a dokuklik.*

e) Aurreko urteetan bezala, 9 dirulaguntza izendunak eman zaizkie Euskadiko titulartasun pribatuko edo erdi-publikoko artxibo nagusienei funtsak deskribatzeko eta kudeatzeko: elizbarrutietako hiru artxiboak; Sabino Arana Fundazioa; Mario Onaindia Fundazioa; Ramón Rubial Fundazioa; Blas de Otero Fundazioa; Lazkaoko Beneditarren Fundazioa; EHBE-ko Xenpelar (XDZ) Dokumentazio Gunea eta, Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteari (ALDEE), prestakuntza ikastaroak antolatzeko. Halaber, Arabako kuadrillei dirulaguntza izendun bat eman zaie, horrela Arabako eskualdeko artxibo sareen funtzionamendua bermatzen da, eta ia-ia lurralde osoa hartzen du.

*e) Como en años precedentes, se han concedido 9 subvenciones nominativas para la descripción de fondos y la gestión de algunos de los principales archivos semipúblicos o de titularidad privada del País Vasco: los tres archivos diocesanos, Fundación Sabino Arana, Fundación Mario Onaindia, Fundación Ramón Rubial, Fundación Blas de Otero, Fundación Benedictinos de Lazkao, Centro de Documentación Xenpelar (XDZ) de EHBE y Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centros de Documentación (ALDEE), al objeto de organizar cursos de formación. Asimismo, se ha concedido una subvención nominativa a las cuadrillas alavesas, que garantiza el funcionamiento de la red de archivos comarcales de Álava, que prácticamente cubre la totalidad de su territorio.*

2020an, dokumentazioa baloratzeko eta xahutzeko programarekin lan egiten jarraitu dugu. Alde batetik, EAEko Toki Administrazioaren eremuko dokumentu-serieak identifikatu, baloratu eta hautatzeko 4 fitxa onartu dira; eta 102 onartu dira, EAEko Administrazio Autonomikoaren eremuko dokumentu-serieak identifikatzeko, baloratzeko eta hautatzeko fitxak.

*En 2020 se ha continuado trabajando con el programa de valoración y expurgo de documentación. Por un lado, con la aprobación de 4 fichas de identificación, valoración y selección de series documentales del ámbito de la Administración Local de la CAE, y la aprobación de 102 fichas de identificación, valoración y selección de series documentales del ámbito de la Administración Autonómica de la CAE.*

Bestalde, dokumentu-serieak baloratzeko eta justizia-administrazioaren hautatzeko-politika kudeatzeko programarekin jarraitu da. 2020an, identifikatzeko, baloratzeko eta hautatzeko 15 fitxa egin dira. Fitxa horiek 2018an aztertzeko transferitutako dokumentazio judizialean oinarrituta landu dira.

*Por otro lado, se ha continuado el programa de valoración de Series documentales y de gestión de la política de expurgo de la administración de Justicia. A lo largo de 2020 se han elaborado 15 fichas de identificación, valoración y selección. Estas fichas se han trabajado en base a la documentación judicial transferida para su análisis en 2019.*

2020an, Argazkiola programarekin jarraitu da, Euskal Autonomia Erkidegoko argazki-artxiboen funtsak berreskuratu, digitalizatu eta zabaltzeko.

*En 2020 se ha continuado con el programa Argazkiola, para la recuperación, digitalización y difusión de los fondos de archivo fotográficos de la Comunidad Autónoma.*

Germán Elorza bilduma eta Euskadiko geografiako FOAT – Turismoarena deskribatzen eta digitalizatzen jarraitu dugu, eta Juantxu Rodriguez funtsa digitalizatu da.

*Se ha continuado describiendo y digitalizando la colección Germán Elorza y la de FOAT–turismo, de geografía de Euskadi y se ha digitalizado el fondo Juantxu Rodriguez.*

**4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA**

a) Eusko Jaurlaritzaren liburutegien integrazioa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean.

b) “Maite Albiz” Emakumeen Dokumentazio Zentroaren liburutegiko katalogoa Sarearen funts bibliografikoan sartzeko hitzarmena.

c) Arabako Foru Aldundiaren liburutegien integrazioa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean, 2.100 bikoiztutako erregistro garbitu egin dira katalogoan.

d) Lege-gordailu bidez sarturiko 950 erregistroen katalogazioa.

e) Euskal liburutegien Katalogo Kolektiboa on line. Jarraitu dugu katalogo honen mantentze-lanekin eta 3.069.012 erregistrotik gora ditu.

f) Euskarazko baliabide tekniko berariazkoak garatzea eta erabiltzea. jarraitu dugu autoritateen datu-base elebidunean gai berriak sartzen eta txarto edo bikoiztuta dauden gaiak arazten.

g) Funtsak hornitzea. Aurreko ekitaldietan bezala, Sare barruko liburutegietako funtsak hornitzen edo/eta berritzeko laguntzen deia egin da. Ekitaldi honetan 185 eskaera izapidetu dira.

h) Haur eta gazteen arteko irakurketa bultzatzea. Horren inguruko ekintzak sustatzeko, aurreko ekitaldietan bezala, Sare barruko liburutegietako laguntzen deia egin da. Ekitaldi honetan 146 eskaera izapidetu dira.

i) EIPSko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko dirulaguntzak. Ekitaldi honetan 97 eskaera izapidetu dira.

j) Estatistika programa. 2020an EIPSren liburutegien 2019. urteari dagozkion datu estatistikoak bildu dira.

k) Liburutegietarako material teknikoa. Eskatutako material tekniko berariazkoa eman zaie Sare menpeko liburutegiei, haien betebeharrak asetzeko.

l) Gazteei zuzendutako youtuber lehiaketa sare sozialetan gazteen liburuak hedatzeko asmoz, bideoak sortuz eta horiek youtubeko kanalera igoz.

m) 1.280 liburu digitalen erosketa eLiburutegia plataformarako, honen bidez mailegu digitala errealitate bihurtu da euskal herritarrentzako.

n) EIPSko profesionalei zuzendutako “Estrategia digitala”-ri buruzko ikastaroaren antolaketa.

o) Filmen mailegu digitalaren zerbitzua. eLiburutegiaren bidez online filmak ikusteko.

EUSKAL KULTURA ONDAREA FORMATU DIGITALEAN SUSTATZEA ETA ZABALTZEA

2020ko memorian, “Liburutegien Euskal Sistema Garatzea” helburuaren 1. ekintza Euskadiko Liburutegi Digitala sortu eta hedatzea da.

2021. urtean liburutegia kudeatzen duen zerbitzua sortu da.

***4. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE BIBLIOTECAS***

*a) Integración de las bibliotecas del Gobierno Vasco en la Red de Lectura Pública de Euskadi.*

*b) Convenio para la integración del catálogo de la biblioteca del Centro de Documentación de Mujeres “Maite Albiz” en el fondo bibliográfico de la Red.*

*c) Depuración de más de 2.100 registros duplicados del catálogo bibliográfico tras la Integración de las bibliotecas de la Diputación Foral de Álava.*

*d) Catalogación de 950 registros de obras ingresadas mediante Depósito Legal.*

*e) Mantenimiento y soporte del Catálogo Colectivo en línea de las Bibliotecas vascas que cuenta con más de 3.069.012 de registros.*

*f) Se ha continuado con la introducción, depuración y corrección de materias de la base de datos bilingüe de autoridades.*

*g) Dotación de fondos. Como en ejercicios anteriores, se han convocado ayudas para la dotación y/o renovación de los fondos de las bibliotecas de la Red. Este ejercicio se han tramitado 185 solicitudes.*

*h) Programas de promoción de la lectura infantil y juvenil. Como en ejercicios anteriores, se han convocado ayudas en este sentido para titulares de bibliotecas integradas en la Red. Este ejercicio se han tramitado 146 solicitudes.*

*i) Ayudas para la implantación y/o desarrollo de las nuevas tecnologías en las bibliotecas públicas integradas en la Red. Este ejercicio se han tramitado 97 solicitudes.*

*j) Programa de estadísticas. En el 2020 se han recogido los datos estadísticos de las bibliotecas de la RLPE correspondientes al año 2019.*

*k) Material técnico para bibliotecas. Se ha proporcionado a las bibliotecas de la Red el material técnico específico que han solicitado para cubrir sus necesidades.*

*l) Concurso de youtuber dirigido a jóvenes para la difusión de libros juveniles en las Redes sociales creando vídeos y subiéndolos al canal de youtube.*

*m) Compra de 1.280 libros digitales para préstamo en eLiburutegia, la plataforma de préstamo digital para la ciudadanía vasca.*

*n) Organización de un taller sobre “Estrategia digital” dirigido a los profesionales de las bibliotecas de la RLPE.*

*o) Servicio de préstamo digital online de películas a través de eLiburutegia.*

*FOMENTAR Y DIFUNDIR EL PATRIMONIO CULTURAL VASCO EN FORMATO DIGITAL*

*En la memoria de 2020 se contempla como acción número 1 del objetivo “desarrollo del Sistema Vasco De Bibliotecas” crear y difundir la Biblioteca Digital de Euskadi.*

*En 2021 se ha creado el servicio que gestiona la biblioteca.*

Digibis enpresari erositako softwarea Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren beharretara egokitzen joan da.

*Se ha ido adaptando el software adquirido a la empresa Digibis a las necesidades de Euskariana, el portal digital de la cultura vasca.*

Euskarianaren web interfazea egokitu da estandarretik bereizitako diseinu batekin, intuitiboagoa eta erabilerrazagoa.

*Se ha adaptado la interfaz web de Euskariana con un diseño diferenciado del estándar, más intuitivo y fácil de usar.*

Hainbat katalogo kolektibotatik datozen erregistroak sartu dira: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogo kolektiboa, Bilgunearen katalogo kolektiboa, ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa; hainbat gordailu instituzionaletatik datozen erregistroak (Antso Jakituna Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala, Eusko Ikaskuntza), akademikoak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea) eta beste kultura-erakunde batzuetatik datozen erregistroak, hala nola Euskadiko Artxibo Historikotik datozenak eta Euskadiko museoen saretik datozenak.

*Se han incorporado registros procedentes de diferentes catálogos colectivos: el catálogo colectivo de la Red de Lectura Pública de Euskadi, el catálogo colectivo de Bilgunea, el catálogo colectivo del patrimonio bibliográfico ; registros procedentes de distintos repositorios institucionales (Fundación Sancho el Sabio, Diputación Foral de Gipuzkoa, de Bizkaia y Ayuntamiento de Bilbao, Eusko Ikaskuntza) y académicos (Universidad del País Vasco, Universidad de Mondragón) y registros procedentes de otras instituciones culturales como el Archivo Histórico de Euskadi y la red de museos de Euskadi.*

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak bultzatutako hainbat euskarriren digitalizatze-lanak egin dira: meatze-lanen planoak, xafla neoklasikoak eta XIX. mendeko liburuak.

*Se han realizado digitalizaciones impulsadas por la Dirección de Patrimonio Cultural de diferentes soportes: planos de labores minas, láminas neoclásicas y libros del siglo XIX.*

Euskal kultura-ondarea katalogatzeko, digitalizatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko agindu bat jarri da abian, OAI_PMH (20/21) gordailuen bidez, euskal kultura-ondarea digitalizatzeko. Partikularrek, enpresek, elkarteek eta findazioek bultzatutako 32 programa aurkeztu dira, 256.152,31 euroko zenbatekoarekin.

*Se ha puesto en marcha una orden para la catalogación, digitalización, conservación y difusión del Patrimonio Cultural Vasco a través de repositorios OAI_PMH (20/21), con el objetivo de digitalizar patrimonio cultural vasco a la que se han presentado 32 programas impulsados por particulares, empresas, asociaciones y fundaciones con un importe de 256.152,31 euros.*

## 5. ZUZENDARITZARI AHOLKULARITZA JURIDIKOA EMATEA ETA JABETZA INTELEKTUALAREN ERREGISTROA KUDEATZEA

## *5. ASESORAMIENTO JURÍDICO A LA DIRECCIÓN Y GESTIÓN DEL REGISTRO DE LA PROPIEDAD INTELECTUAL*

Euskadiko Dokumentu Kudeaketa Integralaren eta Artxiboen Legearen aurreproiektua idazten, alegazioei erantzuten eta izapidetzen lagundu da. Gaur egun, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena aztertzen ari da.

*Se ha colaborado en la redacción, en la contestación a las alegaciones y en la tramitación del anteproyecto de la Ley de Gestión Documental Integral y Archivos de Euskadi. Actualmente, se está en fase de estudio del Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.*

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak sustatutako lankidetza-hitzarmenak aztertu, berrikusi eta izapidetu dira.

*Se han analizado, revisado y tramitado los convenios de colaboración promovidos por la Dirección de Patrimonio C.*

Txosten juridikoak egin dira eta sortutako kontsulta juridikoei erantzun zaie.

*Se han emitido los informes jurídicos y se han atendido las consultas jurídicas generadas.*

Babes bereziko eta babes ertaineko kultura-ondasunen babes juridikorako arauzko egintzak eta xedapenak landu dira.

*Se han elaborado los actos y disposiciones normativas para la protección jurídica de los bienes culturales de protección especial y media.*

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea garatzeko, dekretu-proiektu hauek izapidetu dira:

*En desarrollo de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, se ha dado trámite a los siguientes proyectos de decreto:*

- Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoaren osaera, antolaketa, funtzionamendua eta eginkizun osagarriak arautzen dituen dekretua.
- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroaren Dekretua.
- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseilua arautzen duen dekretua.

*- Decreto por el que se regula la composición, organización, funcionamiento y funciones complementarias del Órgano Interinstitucional del Patrimonio Cultural Vasco.*

*- Decreto del Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco.*

*- Decreto por el que se regula el Consejo de la CAPV de Patrimonio Cultural Vasco.*

Euskadiko Artxibo Historikoari dagozkion kontratuak kudeatu dira, garbiketa-zerbitzuari eta artxibo-armairuak instalatzeari dagokienez.

*Se han gestionado los contratos correspondientes al Archivo Histórico de Euskadi, en relación con el servicio de limpieza y la instalación de armarios de archivo.*

Jabetza intelektualaren eskumenei dagokienez, Erregistroak dagokion Erregelamenduak ezarritako epea baino lehen izapidetu eta ebatzi ditu aurkeztutako eskaerak; beraz, Erregistroaren kudeaketa eguneratuta dago. Amaitutako espedienteak eta dagoeneko erregistratuta dauden obrak Jaurlaritzaren Artxibo Nagusian utzi dira, artxibatzeko eta zaintzeko. Gainera, Jabetza Intelektualaren Erregistratzaileak Koordinatzeko Batzordeari esleitutako lanetan parte hartu da.

*Respecto a las competencias de Propiedad Intelectual, el Registro ha tramitado y resuelto las solicitudes presentadas en un tiempo inferior al marcado por el Reglamento correspondiente, por lo que, la gestión del Registro se lleva al día. Los expedientes finalizados y las obras ya registradas han sido depositados en el Archivo General del Gobierno para su archivo y custodia.*

Zehazki, 2020an 1.811 eskabide aurkeztu dira EAEko Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzeko, honako obra mota hauen arabera: literatura-lanak (1.033), zientifikoak (111), musikalak (407), artistikoak (157), ordenagailu-programak (59), ikus-entzunezkoak (30), datu-baseak (4), fonogramak (6), web-orriak (3).

*En concreto, el número de solicitudes de inscripción en el Registro de la Propiedad Intelectual de la CAPV asciende en el año 2020 a un total de 1.811 solicitudes, según los siguientes tipos de obras: literarias (1.033), científicas (111), musicales (407), artísticas (157), programas de ordenador (59), audiovisuales (30), bases de datos (4), fonogramas (6), obras técnicas (3), páginas web (1).*

Lurralde-banaketari dagokionez, 273 obra erregistratu dira Arabako Erregistro Bulegoan, 901 obra Bizkaiko Bulegoan eta 637 obra Gipuzkoako Bulegoan. Halaber, gaineratu behar da aurkeztutako inskripzio-eskaera guztietatik, 721 emakumeei dagozkiela eta 1.090 gizonei.

*Desde el punto de vista de la distribución territorial, se han registrado 273 obras en la Oficina del Registro de Araba, 901 obras en la Oficina de Bizkaia y 637 en la Oficina de Gipuzkoa. Asimismo, debe añadirse que del total de solicitudes de inscripción presentadas, 721 corresponden a mujeres y 1.090 a hombres.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4515 GIZARTE HEDABIDEAK | *4515 MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL* |

**HELBURUA**

**1. EiTBk ZERBITZU PUBLIKOAREN ESKAINTZA BEHAR BEZALA EGINGO DUELA BERMATZEA, HOTS, EUSKAL KULTURA ETA EUSKARARI, ETA EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN BERDINTASUNA HEDATZEARI LAGUNTZA EMANGO DIELA**

**BETETZE MAILA**

**1. EiTBk ZERBITZU PUBLIKOAREN ESKAINTZA BEHAR BEZALA EGINGO DUELA BERMATZEA, HOTS, EUSKAL KULTURA ETA EUSKARARI, ETA EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN BERDINTASUNA HEDATZEARI LAGUNTZA EMANGO DIELA**

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzatik EiTBk zerbitzu publikoaren eskaintza behar bezala bete dezan, bereziki euskal kultura eta euskara, zein emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta hedatzea, jarri beharreko bitartekoak eskura ematen jarraitu da, aipaturiko betebeharra horrela bermatzeko.

***OBJETIVO***

***1. GARANTIZAR LA ADECUADA OFERTA DE SERVICIO PÚBLICO DE EiTB, CONTRIBUYENDO AL FOMENTO Y DIFUSIÓN DE LA CULTURA VASCA Y DEL EUSKERA, ASÍ COMO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES***

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. GARANTIZAR LA ADECUADA OFERTA DE SERVICIO PÚBLICO DE EiTB, CONTRIBUYENDO AL FOMENTO Y DIFUSIÓN DE LA CULTURA VASCA Y DEL EUSKERA, ASÍ COMO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES***

*Desde la Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social se han mantenido los medios necesarios para garantizar la adecuada oferta de servicio público de EiTB contribuyendo de esta manera al fomento y difusión de la cultura vasca y el euskera, así como de la igualdad de mujeres y hombres.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4711 HIZKUNTZA POLITIKA | *4711 POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA | *VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS* |
| EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DEL EUSKERA* |
| HIZKUNTZA IKERKETA ETA KOORDINAZIORAKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE INVESTIGACIÓN LINGÜÍSTICA Y COORDINACIÓN* |

| **HELBURUA** | ***OBJETIVO*** |
|---|---|
| **1. EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA GARATZEA, SAIL GUZTIEN ARTEKO ELKARLANEAN** | ***1. DESARROLLAR LA AGENDA ESTRATEGICA DEL EUSKERA, EN COLABORACIÓN CON TODOS LOS DEPARTAMENTOS DEL GOBIERNO*** |
| **2. EUSKARA ETA HIZKUNTZA POLITIKAREN INGURUKO ADOSTASUN POLITIKO ETA SOZIALA LANDU ETA AREAGOTZEA** | ***2. CULTIVAR Y PROFUNDIZAR EL ACUERDO POLÍTICO Y SOCIAL RESPECTO AL EUSKERA Y LA POLÍTICA LINGÜÍSTICA*** |
| **3. EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA HERRI ADMINISTRAZIOETAN** | ***3. INCREMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS*** |
| **4. EUSKARAN EGOERARI ETA BILAKABIDEARI BURUZKO IKERKETA SUSTATZEA** | ***4. FOMENTAR LA INVESTIGACIÓN RELATIVA A LA SITUACIÓN Y EL DESARROLLO DEL EUSKERA*** |
| **5. HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BABESTEA** | ***5. PROTEGER LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS*** |
| **6. EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA GIZARTE-BIZITZAN ETA EUSKARAREN GARAPEN SOZIALEAN DIHARDUTEN ERAGILEEN LANA BULTZATZEA** | ***6. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LA SOCIEDAD E IMPULSAR LA LABOR DE LOS AGENTES QUE TRABAJAN EN EL DESARROLLO SOCIAL DEL EUSKERA*** |
| **7. HELDUEN IKASKUNTZA-EGITASMOA SENDOTZEA** | ***7. FORTALECER EL PROYECTO DE APRENDIZAJE DEL EUSKERA DE PERSONAS ADULTAS*** |
| **8. ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA** | ***8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO SOCIOECONÓMICO*** |
| **9. EUSKARA HEDABIDEETAN** | ***9. EL EUSKERA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN*** |
| **10. EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN** | ***10. EL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL*** |
| **11. EUSKARAREN CORPUSA GARATZEKO LANKIDETZA** | ***11. COLABORAR EN EL DESARROLLO DEL CORPUS DEL EUSKERA*** |
| **12. EAEz BESTEKO EUSKARAREN LURRALDEETAKO ERAGILE PUBLIKO ZEIN PRIBATUEKIN LANKIDETZA SUSTATZEA** | ***12. FOMENTAR LA COLABORACIÓN CON AGENTES PÚBLICOS Y PRIVADOS DE LOS TERRITORIOS VASCOS AJENOS A LA CAE*** |
| **13. EUSKARAREN UNIBERTSOA ETA BIZIPENA GIZARTE OSOAREN AURREAN DUINDU ETA PRESTIGIATZEA ETA EUSKARAREN KULTUR KONTSUMOA SUSTATZEA** | ***13. DIGNIFICAR Y PRESTIGIAR EL UNIVERSO Y LA VIVENCIA DEL EUSKERA ANTE TODA LA SOCIEDAD Y FOMENTAR EL CONSUMO CULTURAL EN EUSKERA*** |
| **14. EUSKARAREN NAZIOARTEKO SUSTAPENA ETA ELEANIZTASUNAREN KUDEAKETAREN ALDEKO KONPROMISOA** | ***14. PROMOCIÓN INTERNACIONAL DEL EUSKERA Y COMPROMISO POR LA GESTIÓN DEL PLURILINGÜISMO*** |

**BETETZE MAILA**

**1. EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA GARATZEA, SAIL GUZTIEN ARTEKO ELKARLANEAN**

1. Euskararen Agenda Estrategikoaren 2020ko kudeaketa plana gauzatu da.

1.1. Euskadi 2020 Gobernu Programako 4 konpromiso eta 14 ekimen zehaztu eta garatu dira. Agendako jardueren berri eman da IREKIA webgunean; 100 berri baino gehiago argitaratu dira.

1.2. Euskararen Agenda Estrategikoaren Jarraipen Batzordeak ez du bilerarik egin 2020an. Bilera aurreikusita zegoen 2020ko martxoaren 23rako, baina pandemiaren ondorioz, ezin izan da egin. Azkenean, 2020 urteko kudeaketari dagokion informazio guztia helarazi zaie batzordekide guztiei emailez 2020ko apirilaren 23an.

**2. EUSKARA ETA HIZKUNTZA POLITIKAREN INGURUKO ADOSTASUN POLITIKO ETA SOZIALA LANDU ETA AREAGOTZEA**

1. 2020ko uztailaren 28an Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordeari buruzko 99/2020 Dekretua onartu du. Horren bidez, Euskararen Aholku Batzordearen funtzionamendua eta osaera egokitu da: Osokoaren kide kopurua murriztu da, berdintasun ikuspegia txertatu da osaeran eta funtzionamendu arauak eguneratu dira.

Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak bilera egin du, 2020ko abenduaren 2an, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela. Bertan honako gai hauek aztertu dira: Euskararen Aholku Batzordearen 99/2020 Dekretua; 2020-2024 Legealdirako HPSren lehentasunak eta EABren Batzorde-atal Bereziak osatzeko proposamena.

2. Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak bilera egin du 2020ko otsailaren 26an. Bertan Bide-orri berriaren txosten-atalen aurkezpena egin da, eta “Euskararen estrategia digitalaren bila, Europari begira” jardunaldiari buruzko informazioa zabaldu da (jardunaldia 2020ko abenduaren 11n gauzatu da).

Terminologia Batzorde-atal Bereziak bilera egin du 2020 urtarrilaren 23an (pandemia dela eta, legegintzaldiko azken bilera bertan behera geratu da). Bertan hiztegi terminologiko bat onartu du: ‘Igeriketa Hiztegia’ (264 sarrera). Horrez gain, 3 batzorde tekniko antolatu dira hiztegi hauek aztertzeko: ‘Zurgintza Hiztegia’ (1.597 sarrera), ‘Astronomia Hiztegia’ (310 sarrera) eta ‘Kardiologia Hiztegia’ (503 sarrera; lana amaitu da).

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. DESARROLLAR LA AGENDA ESTRATEGICA DEL EUSKERA, EN COLABORACIÓN CON TODOS LOS DEPARTAMENTOS DEL GOBIERNO***

*1. Se ha implementado el plan de gestión de la Agenda Estratégica del Euskera correspondiente al 2020.*

*1.1. Se han definido y desarrollado 4 compromisos y 14 iniciativas del Programa de Gobierno Euskadi 2020. Las actividades de la Agenda se han dado a conocer en la página web IREKIA; se han publicado más de 100 noticias.*

• *Se ha hecho un esfuerzo por impulsar la obtención de la certificación BIKAIN, especialmente a través del Consejo Rector. Sin embargo, debido a la situación de pandemia que hemos vivido en 2020, se han realizado menos evaluaciones que en años anteriores. Algunas entidades que a principios de año solicitaron la evaluación tuvieron que renunciar a ella, ya que la actividad de la empresa se suspendió totalmente.*

• 2017ko Dekretuaren arabera ebaluatu dira 22 erakunde (1.109 langile), baina Covid-19 pandemiak eraginda, online egin behar izan dira, lehen aldiz, bai prestakuntza-saioak, bai ebaluazioak.

• *22 entidades han sido evaluadas según el Decreto 2017 (1.109 trabajadores), pero la pandemia Covid-19 ha obligado a realizar en línea, por primera vez, tanto las sesiones formativas, como las evaluaciones.*

• BIKAIN aplikazioa 2018tik erabiltzen da ebaluazio-prozesuetan eta unean uneko zuzenketak eta egokitzapenak egin dira.

• *La aplicación BIKAIN se utiliza desde 2018 en los procesos de evaluación y se han realizado correcciones y adaptaciones puntuales.*

• Ziurtagiriak banatzeko ekitaldi publikoa 2020ko abenduaren 15ean egin da Bilboko Euskalduna Jauregian. Covid-19 pandemiak eraginda, streaming bidez jarraitzeko aukera eman zaie lehen aldiz herritar guztiei, Irekian emititu baitzen zuzenean. Ziurtagiria jaso behar zuten erakundeen ordezkariak eta Artezkaritza Kontseiluko kideak baino ez dira bertan egon, segurtasun neurri guztiak zainduta.

• *El acto de entrega de los certificados ha tenido lugar el 15 de diciembre de 2020 en el Palacio Euskalduna de Bilbao. Debido a la pandemia Covid-19, se ha dado la oportunidad por primera vez de seguirla en streaming a toda la ciudadanía, ya que se emitió en directo en Irekia. Solo han estado presentes representantes de las instituciones que debían recibir el certificado y miembros del Consejo Rector, vigilando todas las medidas de seguridad.*

• Guztira 21 ziurtagiri eman dira 2020ko bi ebaluazio-aldien artean: 4 lehen ebaluazio-aldian eta 17 bigarrenean.

4. Euskara lan munduan sustatzeko, 2018tik Errota Fundazioa ari da “Arratian euskararen garapena lan-munduan” izeneko proiektua gauzatzen eta 2020an dirulaguntza izendunaren bidez eman zaio laguntza proiektuari. Aurreko bi urteetan euskara planei buruzko diskurtsoen gainean egindako lanen harira, mintegia antolatu zen 2020rako, baina Covid-19 pandemiak eraginda, 2021era atzeratu da.

5. 123/2008 Dekretuaren betetze-maila neurtzea aurreikusita bazegoen ere, ez zitzaion egokia iritzi 2020an egiteari, Covid-19 pandemiak bereziki eragin duelako hizkuntza eskubideak bermatu behar dituzten sektore askotan: garraioan, ostalaritzan… Aurrerago egiteko utzi da, egoera normaltzen denean. Nolanahi ere, herritar eta merkatari euskaldunen aktibaziorako kanpaina bat jarri da abian, proba pilotu modura, hainbat erakunde publikorekin elkarlanean. HPSrekin batera, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalek eta Oarsoaldeak ere hartu dute parte “Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz” izeneko kanpainan.

*• Se han emitido un total de 21 certificaciones entre los dos periodos de evaluación de 2020: 4 en el primer periodo de evaluación y 17 en el segundo.*

*4. A fin de promocionar el euskera en el mundo laboral, desde 2018 Errota Fundazioa está llevando a cabo el proyecto "Arratian euskararen garapena lan munduan", que ha sido subvencionado nominativamente en 2020. Con motivo de los trabajos sobre discursos de los planes de euskera realizados los dos años anteriores, se organizó un seminario para 2020, pero la pandemia Covid-19 ha obligado a retrasarlo a 2021.*

*5. Aunque estaba previsto medir el grado de cumplimiento del Decreto 123/2008, no se consideró adecuado hacerlo en 2020, ya que la pandemia Covid-19 ha incidido especialmente en muchos sectores que deben garantizar los derechos lingüísticos: transporte, hostelería… Se ha pospuesto para cuando la situación se normalice. En cualquier caso, se ha puesto en marcha una campaña de activación de ciudadanos y comerciantes euskaldunes, a modo de prueba piloto, en colaboración con diferentes instituciones públicas. Junto a la VPL, también han participado los ayuntamientos de Vitoria-Gasteiz, Bilbao y San Sebastián y Oarsoaldea con la campaña "Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz".*

## 9. EUSKARA HEDABIDEETAN

1. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko hitzarmena 2019an sinatu zen. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak bere 5. artikuluan herritarrei aitortzen dien eskubidea (aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea) gauzatzeko helburua du hitzarmen horrek. Jarraipen Batzordeak 2 bilera egin ditu 2020an.

2. Euskal Hedabideen Mahaia sortu zen 2020ko uztailaren 8an. Euskal hedabideen sektoreak eta erakunde publikoek (Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak) sortu duten batzorde iraunkor horren funtzio nagusia sektorearen beharrizan eta erronkak mahai gainean jarri eta horiei buruz diagnostiko amankomunak egin, eztabaidak garatu eta, ahal den heinean, irtenbide adostuak bilatzea da.

Euskal Hedabideen Mahaiak adostuta, euskarazko komunikazioaren irismena neurtzeko sistema bat diseinatu da, EHUrekin batera. Horretarako, informazio iturrien mapa garatu eta datu kuantitatiboen datu-baseen analisia egin da.

2.1. 4 bilera egin dira.

3. Euskal Editorea SL entitatearekin hitzarmenaren kudeaketa egin da (2019-2021). Hitzarmen honen xedea da Berria egunkariaren aurreranzko ekinbidea ziurtatzeko alde desberdinek bere gain hartzen dituzten diru- eta baliabide-betebeharrak arautzea.

3.1. 2 bilera egin dira.

## *9. EL EUSKERA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN*

*1. El Convenio entre el Gobierno Vasco y las diputaciones forales se firmó en 2019. Dicho convenio tiene por objeto hacer efectivo el derecho que la Ley 10/1982 reconoce a la ciudadanía en su artículo 5 (derecho a recibir en euskera revistas y emisiones de radiotelevisiones y otros medios de comunicación). La Comisión de Seguimiento ha celebrado 2 reuniones en 2020.*

*2. Se ha creado el 8 de julio de 2020 la Mesa de Medios de Comunicación Vascos. La función principal de dicha comisión permanente creada por el sector de los medios de comunicación vascos y las instituciones públicas (Gobierno Vasco y diputaciones forales) es poner sobre la mesa las necesidades y retos del sector y realizar diagnósticos comunes sobre los mismos, desarrollar debates y buscar, en la medida de lo posible, soluciones consensuadas.*

*Por acuerdo de la Mesa de Medios de Comunicación Vascos, se ha diseñado, junto con la UPV/EHU, un sistema de medición del alcance de la comunicación en euskera. Para ello, se ha desarrollado un mapa de fuentes de información y se ha realizado un análisis de las bases de datos cuantitativos.*

*2.1. Se han celebrado 4 reuniones.*

*3. Se ha realizado la gestión del convenio con Euskal Editorea S.L. (2019-2021). El presente convenio tiene por objeto regular las obligaciones monetarias y de recursos que asumen las diferentes partes para asegurar la iniciativa del periódico Berria.*

*3.1. Se han celebrado 2 reuniones.*

4. Euskarazko Hedabideak deialdia (2019-2021) kudeatu da euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak emateko.

*4. Se ha gestionado la convocatoria Euskarazko Hedabideak (2019-2021) para la concesión de subvenciones destinadas a la consolidación, penetración, desarrollo y normalización de los medios de comunicación en euskera.*

4.1. Ebazpena hiru urterako izan da. Beraz, 2019an 2020ko laguntzak esleitu ziren. 63 egitasmo aurkeztu ziren eta 2020rako 60 diruz lagunduak izan dira.

*4.1. La resolución ha sido para tres años. Por lo tanto, en 2019 se adjudicaron las ayudas de 2020. Se presentaron 63 proyectos y para 2020 han sido subvencionados 60 proyectos.*

5. Gaztelaniazko Hedabideak deialdia (2019-2020) kudeatu da nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (egunerokо prentsan eta uhin bidezko irratietan) eta Internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan euskararen erabilera areagotzeko.

*5. Se ha gestionado la convocatoria Gaztelaniazko Hedabideak (2019-2020) para incrementar el uso del euskera en los medios de comunicación en castellano (prensa diaria y radios onduladas) y en las agencias de noticias que emitan noticias también en euskera a través de Internet.*

5.1. 13 egitasmo aurkeztu dira eta guztiak diruz lagundu dira.

*5.1. Se han presentado 13 proyectos y se han subvencionado todos ellos.*

6. Tokian tokiko euskarazko hedabideekin lankidetza sustatzeko, Toki Komunikabideen Bateraguneari (TOKIKOM SL) dirulaguntza eman zaio bere jarduera finantzatzeko.

*6. A fin de promover la colaboración con los medios de comunicación locales en euskera, se ha concedido una subvención a la red de medios locales en euskera (TOKIKOM S.L.) para financiar su actividad.*

7. Telefónica Audiovisual Digital S.L.U. enpresari emandako dirulaguntza izendunaren bidez, Movistar+ plataformaren fikzio-estreinaldietan euskarazko azpitituluak jarri dira.

*7. Mediante una subvención nominativa a la empresa Distribuidora de Televisión Digital S.A. (DTS), se subtitularán en euskera los estrenos de ficción de la plataforma Movistar +.*

7.1. Azpititulatutako film kopurua: 145, eta azpitutulatutako serie kopurua: 300 kapitulu.

*7.1 Número de películas subtituladas: 145, y número de series subtituladas: 300 capítulos.*

8. Andoaingo Udalarekin batera, XXXII. Rikardo Arregi Kazetaritza saria sustatu da. Sarien helburua euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da. Sariak 2 izan dira: Kazetaritza saria (Arantxa Arza eta Felix Zubia, Euskadi Irratiko Osasun Etxea irratsaioa) eta Komunikazio saria (“Egunean behin” jokoa, Code Syntax-en eskutik). 2020ko azaroaren 26an izan da ekitaldi nagusia.

*8. Junto al Ayuntamiento de Andoain, se ha promovido el XXXII. Premio de Periodismo Rikardo Arregi. El objetivo de los premios es impulsar la calidad, excelencia e innovación del periodismo en euskera. Los premios han sido 2: de Periodismo (Arantxa Arza y Felix Zubia, del programa de radio Osasun Etxea de Euskadi Irratia) y de Comunicación (juego "Egunean behin", de la mano de Code Syntax). El acto central se ha celebrado el 26 de noviembre de 2020.*

### 10. EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

### *10. EL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL*

1. IXA Taldeak, HPSren enkarguz, Hizkuntza Teknologien ikuspegi orokorra ematen duen txostena osatu du. Horretarako, esparru horretan euskararen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak (AMIA) aztertu ditu.

*1. El Grupo IXA ha elaborado, por encargo de la VPL, un informe que ofrece una visión general de las Tecnologías Lingüísticas. Para ello, ha analizado las oportunidades, amenazas, fortalezas y debilidades del euskera (DAFO) en ese ámbito.*

2. Euskara Ingurune Digitalean deialdiaren bitartez, ingurune digitalean euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko dirulaguntzak banatu dira. 91 eskabide jaso dira, eta horietatik 31 egitasmo diruz lagundu dira, guztiak ere Interneten edukiak euskaraz garatzeko.

*2. A través de la convocatoria Euskara en el Entorno Digital se han concedido subvenciones para la promoción, desarrollo y/o normalización del euskera en el entorno digital. Se han recibido 91 solicitudes de las que se han subvencionado 31 proyectos para el desarrollo de contenidos en Internet en euskera.*

3. Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziaren bidez IKTen behaketa jarraitua egiten jarraitu da. Aipatutako batzordearen eskariz, “Euskararen estrategia digitalaren bila, Europari begira” jardunaldia antolatu da 2020ko abenduaren 11n; bertan, Europako hainbat gobernuk garatutako estrategia digitalak ezagutu ahal izan dira. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak legealdi honetan eta

*3. A través de la Comisión Especial para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital del Consejo Asesor del Euskera, se ha seguido realizando una observación continua de las TIC. Por petición de la citada comisión, se ha organizado la Jornada “Perspectiva europea para la estrategia digital del euskera”, el 11 de diciembre de 2020. En dicha jornada se han podido conocer las estrategias digitales desarrolladas por varios gobiernos europeos.*

ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzeko jarraitu beharreko bide-orria idatzi da (ikusi memoria honen 2. atala: Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia).

*Además, se ha escrito la hoja de ruta que seguirá el Gobierno Vasco esta legislatura para fomentar el uso del euskera en el entorno digital (ver el apartado 2 de esta memoria: Comisión Especial para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital)*

4. Euskara ingurune digitalean sustatzeko deialdiaren bidez diruz lagunduko egitasmoen inguruko informazioa eguneratzen eta zabaltzen jarraitu da (www.euskadi.eus/ euskara).

*4. Se ha seguido actualizando el inventario de los proyectos subvencionados a través de la convocatoria destinada a promover el uso del euskera en las TIC (www.euskadi.eus /euskara).*

Horrez gain, produktu horiei guztiei zabalkunde handiagoa emateko “Gozatu sarean euskaraz” kanpaina bideratu da sare sozialetan, hainbat fasetan: aisialdiko produktuak, kulturako produktuak, hedabide digitalak eta denetarikoak.

*Además, se ha realizado la campaña “Gozatu sarean euskaraz/Disfruta en euskera en la red” en las redes sociales, para dar mayor difusión a todos esos productos subvencionados. La campaña ha tenido diferentes fases: ocio, cultura, medios de comunicación digitales, y varios productos más.*

ITZULI itzultzaile neuronala (www.euskadi.eus/itzuli) garatzen jarraitu da: euskara ↔ ingelesa eta euskara ↔ frantsesa itzulpen-norabideak gehitu dira; itzultzaile juridiko-administratiboa jarri da abian; eta funtzionalitate berri bat gehitu da, dokumentu oso bat itzultzeko aukera ematen duena. Aplikazio horren app-ak eguneratu dira Android eta iOS sistema eragileetarako. Gainera, ITZULI+ tresna garatu da Chromerako eta Firefoxerako, tresna bakar batean hauek biltzen dituena: ITZULI itzultzaile neuronala (eu↔es, eu↔fr eta eu↔en), 3 hiztegi elebidun (eu↔es, eu↔es eta eu↔de) eta Euskarazko Wikipedia.

*Se ha continuado desarrollando el traductor neuronal ITZULI (www.euskadi.eus/itzuli): se han incorporado las direcciones de traducción euskera ↔ inglés y euskera ↔ francés; se ha puesto en marcha el traductor jurídico-administrativo; y se ha añadido una nueva funcionalidad que da opción a traducir documentos enteros. También se han actualizado las apps de esta aplicación para los sistemas operativos Android e iOS. Además, se ha desarrollado la herramienta ITZULI+ para Chrome y Firefox, que incluye en una sola herramienta el traductor neuronal (eu↔es, eu↔fr y eu↔en), 3 diccionarios bilingües (eu↔es, eu↔es y eu↔de) y la Wikipedia en euskera.*

Azkenik, Elhuyar hiztegia on line eguneratu da (hizkera kolokiala eta lexiko baztertzailea kontuan izanda) bai eta Xuxen zuzentzaile ortografikoa ere (genero ikuspegia aintzakotzat hartuta). Azken bertsioa Euskarazko softwarea deskargatzeko gunean eskura daiteke.

*Por último, se ha actualizado el diccionario on line Elhuyar (teniendo en cuenta el lenguaje coloquial y el léxico excluyente) y el corrector ortográfico de Xuxen (incluye la perspectiva del género). La última versión está disponible en el sitio de descarga de software en euskera.*

5. 2020-2023 urte anitzeko dirulaguntza izendunaren bidez, Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak Wikipedian 12-16 urteko gazteentzako artikuluak eskuragarri izatea helburua duen egitasmoa gauzatuko du.

*5. A través de la subvención plurianual nominativa 2020-2023, Euskal Wikilarien Kultura Elkartea llevará a cabo un proyecto que tiene como objetivo la disponibilidad en la Wikipedia de artículos para jóvenes de 12 a 16 años.*

### 11. EUSKARAREN CORPUSA GARATZEKO LANKIDETZA

### *11. COLABORAR EN EL DESARROLLO DEL CORPUS DEL EUSKERA*

1. Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Euskaltzaindiak sinatuta izan dute programa-kontratua 2018ra arte. 2019an luzatu eta 2020an indarrik gabe geratu denez, dirulaguntza izendunak bideratu dira Euskaltzaindiaren lan programak garatzen laguntzeko. Lehenengo dirulaguntza izendunaren bidez urteko lan-programak eta horiek gauzatu ahal izateko funtzionamendu gastuak ordaindu dira eta, bigarren dirulaguntza izendunaren bidez, oroitidazkiaren argitalpen elektronikoa eta zenbait lan informatiko.

*1. El Gobierno Vasco, las diputaciones forales y Euskaltzaindia han tenido suscrito un contrato-programa hasta 2018. Dado que se ha prorrogado en 2019 y ha quedado sin efecto en 2020, se han destinado subvenciones nominativas para apoyar el desarrollo de los programas de trabajo de Euskaltzaindia. Mediante la primera subvención nominativa se han pagado los programas de trabajo anuales y los gastos de funcionamiento para poder llevarlos a cabo y, mediante la segunda subvención nominativa, la publicación electrónica de la memoria y algunos trabajos informáticos.*

2. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Labayru Fundazioak sinatuta izan duten programa 2019an bukatu da eta, 2020an indarrik gabe geratu denez, dirulaguntza izenduna esleitu zaio da euskararen corpusaren inguruan lan egiten jarraitzeko. Lexikografia arloan 2 egitasmo nagusi garatu dituzte: Hiztegi Fraseologikoa eta Labayru Hiztegia online. Horrez gain, sareko gramatika prestatzen jardun dute.

*2. El programa, firmado por el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y la Fundación Labayru, ha finalizado en 2019, y al quedar sin vigencia en 2020, se le ha concedido una subvención nominativa para seguir trabajando en torno al corpus del euskera. En el campo de la lexicografía han desarrollado 2 proyectos: el Diccionario Fraseológico y el Diccionario Labayru online. Además, han trabajado en la elaboración de una gramática en la red.*

3. Euskarazko terminologiaren alorrean lan hauek egin dira:

a) EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan (www.euskadi.eus/euskalterm) hiztegi terminologikoak kargatzeko eta integratzeko, 2020ko maiatzaren 29an sinatutako kontratuko lanak amaitu dira. Bestalde, Bankua eguneratzeari begira 2020ko uztailaren 8an sinatutako kontratuaren barruan, 3 hiztegi terminologiko egin dira: 'Immunologia Hiztegia' (451 sarrera), 'Saiakuntza Klinikoak Hiztegia' (467 sarrera) eta 'Beiragintza Hiztegia' (302 sarrera). Horrez gain, etorkizun hurbilean, Bankua espezializazio maila handiagoko terminoekin elikatzeko, 2018ko 'Materialen Zientzia eta Teknologia (MZT)' kongresuko hitzaldietako terminoen hustuketa egin eta oinarrizko nomenklatura osatu da (4.496 sarrera), haien testuinguruekin.

Horrez gain, EUSKALTERMen aplikazioak (Internetekoa eta Intranetekoa) berritu egin dira diseinu eta funtzionalitate berriekin.

b) Terminologia lanen jarduketa-plana garatu da (ikusi memoria honen 2. atala: Terminologia Batzorde-atal Berezia).

c) 3 hiztegi argitaratu dira eta horien zabalkundea egin da: 'Zirkulazioa Hiztegia', 'Igeriketa Hiztegia' eta 'Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia'.

4. Euskarazko doktorego-tesien corpusa (www.euskadi.eus/tesiak) handitzen jarraitu da eta 53 tesi berri jarri dira eskuragarri 2020an. Guztira, 603 euskarazko doktorego-tesi kontsulta daitezke corpus horretan.

5. Toponimia arloan, lan hauek egin dira:

a) EAEko toponimia datu-basea eta Izendegi Geografikoa zuzentzen eta eguneratzen jarraitu da. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak diruz laguntzen dituen udal-mapetako toponimia gainbegiratu eta datu horiekin zuzenketak eta eguneraketak egin dira Izendegi Geografikoan. 2020an 18 udal mapa zuzendu dira. Izendegi Geografikoaren aplikazioan hobekuntzak sartu dira (ikusi memoria honen 2. atala: Toponimia Batzorde-atal Berezia).

Azkenik, EAEko bi udalerritan burututako toponimia-ikerketak moldatu dira Izendegi Geografikoan kargatu ahal izateko.

b) EAEko biztanle-guneen izen ofizialen aldaketak sustatu dira behar zen kasuetan. Ondorioz, Bizkaiko biztanle-entitate baten izen ofiziala aldatzeko espedientea burutu da.

Horrez gain, Toponimia zuzena hedatzeari bultzada eman zaio:

*3. En el campo de la terminología en euskera se han realizado los siguientes trabajos:*

*a) Se han finalizado los trabajos del contrato suscrito el 29 de mayo de 2020 para la carga e integración de diccionarios terminológicos en el Banco Terminológico Público Euskalterm (www.euskadi.eus/euskalterm). Por otra parte, dentro del contrato que se firmó el 8 de julio de 2020 a fin de actualizar el Banco, se han elaborado 3 diccionarios terminológicos: 'Immunologia Hiztegia' (Diccionario de Inmunología, 451 entradas), 'Saiakuntza Klinikoak Hiztegia' (Diccionario de Ensayos Clínicos, 467 entradas) y 'Beiragintza Hiztegia' (Diccionario de Fabricación de Vidrio, 302 entradas). Además, para actualizar el Banco en un futuro próximo con terminología más especializada, se ha realizado un vaciado de términos de las conferencias del congreso de 2018 'Materialen Zientzia eta Teknologia (MZT)' (Ciencia y Tecnología de los Materiales) y se ha completado la nomenclatura básica (4.496 entradas) con sus contextos.*

*Además, se han actualizado las aplicaciones de EUSKALTERM (Internet e Intranet) con nuevo diseño y nuevas funcionalidades.*

*b) Se ha desarrollado el plan de actuación de los trabajos terminológicos (ver el apartado 2 de esta memoria: Comisión Especial de Terminología).*

*c) Se han publicado y distribuido 3 diccionarios terminológicos: 'Zirkulazioa Hiztegia' (Diccionario de Circulación), 'Igeriketa Hiztegia' (Diccionario de Natación) eta 'Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia' (Diccionario de Feminismo e Igualdad).*

*4. Se ha continuado enriqueciendo el corpus de las tesis doctorales en euskera (www.euskadi.eus/tesiak) y, en 2020, se han añadido 53 tesis. En total, en ese corpus se pueden consultar 603 tesis doctorales escritas en euskera.*

*5. En el ámbito de la toponimia, se han realizado los siguientes trabajos:*

*a) Se ha continuado corrigiendo y actualizando la base de datos de toponimia de la CAE, así como el Nomenclátor Geográfico a partir de la revisión de los mapas municipales subvencionados por el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes. En el año 2020 se han revisado 18 mapas municipales. También se han introducido mejoras en la aplicación del Nomenclátor (ver el apartado 2 de esta memoria: Comisión Especial de Toponimia).*

*Se han adaptado dos estudios de toponimia correspondientes a dos municipios de la CAE para su posterior carga en el Nomenclátor Geográfico.*

*b) Se ha impulsado la modificación de los nombres oficiales de aquellos núcleos de población de la CAE que lo requerían. Así, se ha finalizado el expediente de cambio de nombre de una entidad de población de Bizkaia.*

*Además, se ha fomentado el uso correcto de los topónimos a través de:*

- Aldatutako izen ofizialen zabalkundea egin da herri-administrazio ezberdinei, askotariko enpresei eta hainbat herritarri informazioa bidaliz.

- Toponimiaren zabalkundean eragile garrantzitsuak direnek erabiltzen dituzten toponimoen jarraipena egin da, bereziki Interneten oso erabiliak diren tresnak aztertuz eta akatsak zuzenduz.

c) Toponimia-arloan lankidetza eta koordinazioa sustatu dira, bereziki, Euskaltzaindiarekin, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin, Kultura Ondare Sailburuordetzarekin, EUSTATekin eta Donostiako Udalarekin. Horrez gain, lankidetza estua izan da Instituto Geográfico Nacional-arekin.

*- La difusión de los nombres oficiales modificados mediante su notificación a diferentes administraciones, empresas y particulares.*

*- Mediante un seguimiento del uso de los topónimos por parte de los usuarios más importantes, analizando especialmente las herramientas más utilizadas en Internet y llevando a cabo correcciones.*

*c) Se ha fomentado la colaboración y la coordinación en el ámbito de la toponimia, especialmente con Euskaltzaindia, con el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transporte del Gobierno Vasco, con la Dirección de Patrimonio de Cultura, con el EUSTAT y con el Ayuntamiento de San Sebastián. Además, se ha trabajado en estrecha colaboración con el Instituto Geográfico Nacional.*

6. 2019an Zinpeko itzultzaile nahiz interprete lanetarako habilitazioa lortzeko probetarako deialdia (euskara ↔ gaztelania, euskara ↔ ingelesa eta euskara ↔ frantsesa) argitaratu zen. 2020ko uztailaren 17ko ebazpen bidez jakinarazi da 13 pertsonak eskuratu dutela euskara ↔ gaztelania zinpeko itzultzaile lanetarako habilitazioa eta 5 pertsonak euskara ↔ gaztelania zinpeko interprete lanetarako habilitazioa. 2020an, itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzko 88/2009 Dekretua egokitzeko aukera ere aztertu da.

*6. En 2019 se publicó la convocatoria de las pruebas de habilitación de traductores e intérpretes jurados o traductoras e intérpretes juradas (euskera ↔ castellano, euskera ↔ inglés y euskera ↔ francés). Por resolución de 17 de julio de 2020 del Departamento de Seguridad, se informa que 13 personas han obtenido la habilitación de traductores jurados o traductoras juradas en euskera ↔ castellano y 5 personas la habilitación intérpretes jurados o intérpretes juradas en euskera ↔ castellano. En 2020 también se ha analizado la posibilidad de modificar el Decreto 88/2009 sobre la habilitación de traductores e intérpretes jurados.*

**12. EAEz BESTEKO EUSKARAREN LURRALDEETAKO ERAGILE PUBLIKO ZEIN PRIBATUEKIN LANKIDETZA SUSTATZEA**

1. Eusko Jaurlaritzak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak 2017-2022 epealdirako hitzarmen markoaren urteko eranskina sinatu dute Baionan, 2020ko uztailaren 3an. 2020ko eranskinaren bitartez, Ipar Euskal Herriko 15 eragile jakinentzat hitzarmen bidez diru-multzoa bideratu da batetik, eta bestetik, Iparraldeko beste hainbat eragilerentzako dirulaguntza deialdia bideratu da. Deialdira 51 egitasmo aurkeztu dira, eta horietatik 44 diruz lagundu dira.

2. Eusko Jaurlaritzak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko Iruñean, 2017ko uztailaren 3an, sinatutako hitzarmenaren jarraipena egin da. Jarraipenerako bilerak egin dira eta lankidetzarekin jarraitu da, hainbat alorretan: EAS, Inkesta, Euskaraldia...

***12. FOMENTAR LA COLABORACIÓN CON AGENTES PÚBLICOS Y PRIVADOS DE LOS TERRITORIOS VASCOS AJENOS A LA CAE***

*1. El Gobierno Vasco y la Oficina Pública del Euskera de Iparralde han firmado en Baiona, el 3 de julio de 2020, el anexo anual del convenio marco para el periodo 2017-2022. A través del anexo 2020 se ha canalizado el conjunto de fondos para 15 agentes concretos de Iparralde y se ha tramitado la convocatoria de subvenciones para otros muchos agentes de Iparralde. A la convocatoria se han presentado 51 proyectos, de los cuales 44 han sido subvencionados.*

*2. Se ha realizado el seguimiento del convenio suscrito en Pamplona, el 3 de julio de 2017, entre el Gobierno Vasco, la Oficina Pública del Euskera de Iparralde y el Gobierno de Navarra, para la promoción del euskera. Se han mantenido reuniones de seguimiento y se ha continuado con la colaboración en diferentes ámbitos: EAS, Encuesta, Euskaraldia...*

**13. EUSKARAREN UNIBERTSOA ETA BIZIPENA GIZARTE OSOAREN AURREAN DUINDU ETA PRESTIGIATZEA ETA EUSKARAREN KULTUR KONTSUMOA SUSTATZEA**

1. EITBrekin lankidetzan, Eusko Jaurlaritzaren euskararen komunikazio ardatza eta euskararen erabilera soziala indartzeko 4 kanpaina egin dira: “Euskaraldia! Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan” entitateei begira egindako

***13. DIGNIFICAR Y PRESTIGIAR EL UNIVERSO Y LA VIVENCIA DEL EUSKERA ANTE TODA LA SOCIEDAD Y FOMENTAR EL CONSUMO CULTURAL EN EUSKERA***

*1. En colaboración con EITB, se han realizado 4 campañas para reforzar el eje de comunicación del euskera y el uso social del euskera del Gobierno Vasco: "Euskaraldia! Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan” campaña dirigida a*

kanpaina (udaberrian); “Euskaraldia! Eman izena” norbanakoei begira egindako kanpaina (udazkenean); “Euskaraldia! 15 egunetako bizipenak” 10 iragarki labur tentsio komunikatiboa zaintzeko (azaroaren 20tik abenduaren 4ra) eta HABEren matrikulazio kanpaina.

*entidades (en primavera); "Euskaraldia! Eman izena" dirigida a particulares (en otoño); "Euskaraldia! 15 egunetako bizipenak" 10 breves anuncios para preservar la tensión comunicativa (del 20 de noviembre al 4 de diciembre) y campaña de matriculación de HABE.*

EITB ez diren beste hedabide batzuetan ere zabaldu dira 4 kanpaina horiek. Promozio kanpainetarako honako hauek diseinatu dira: spotak, kuinak, bannerrak, prentsarako iragarkiak, sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram), micrositea eta biniloak.

*Esas 4 campañas también se han difundido en otros medios de comunicación fuera de EITB. Para las campañas de lanzamiento se han diseñado spots, cuñas, banners, anuncios para prensa, redes sociales (Facebook, Twitter, Instagram), microsite y vinilos.*

2. Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen da, eta urtero ekitaldi instituzionala antolatu ohi da. COVID-19 pandemiak eraginda, zuzeneko ekitaldia antolatu beharrean, EITBrako telesaio bat prestatu da. 2020an, lekukoa Gasteizek hartu behar zuenez, grabazio gehienak bertan egin dira. Ekitaldia EITBn zuzenean eskaini ohi da, 45 minutuko iraupena izan ohi du eta areto batean egin ohi da. Ekitaldian, aurkezleak, pertsona ospetsuek, dantzariek, musikariek, arduradun politikoek... parte hartu izan dute. Elkarrizketak, aurkezpenak eta bestelakoak aretotik kanpo grabatu dira, ondoren EITBn saio berezia eskaini ahal izateko.

*2. El Día Internacional del Euskera se celebra el 3 de diciembre, y anualmente se organiza un acto institucional. Debido a la pandemia COVID-19, en lugar de organizar un evento en directo, se ha preparado un programa para EITB. Como el testigo iba a ser recogido por Vitoria-Gasteiz, la mayoría de las grabaciones se han realizado ahí mismo. El evento se suele emitir en directo en EITB, suele tener una duración de 45 minutos y suele celebrarse en una sala. En el acto suelen participar presentadores, personalidades, bailarines, músicos, responsables políticos... Las entrevistas, presentaciones y demás se han grabado fuera de la sala para después poder ofrecer un programa especial en EITB.*

3. Adierazpen Instituzionala HAKOBAko kide guztiek sinatu zuten; hau da, Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek, Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizeko udalek, EUDELek eta UEMAk. 2020ko leloa: “Euskara, aurrerabide. Gizartea euskaraz biziberritzea helburu”. Dokumentua maketatu da eta zabaldu egin da. COVID-19ak eraginda, zabalkundea digitalki baino ez da egin.

*3. La Declaración Institucional fue firmada por todos los miembros de HAKOBA, es decir, el Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, los ayuntamientos de Bilbao, San-Sebastián y Vitoria-Gasteiz, EUDEL y UEMA. El lema de 2020: “El euskera nos hace avanzar. Revitalicemos nuestra sociedad en euskera”. El documento se ha maquetado y difundido. Debido al COVID-19, la difusión ha sido exclusivamente digital.*

4. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari (EHBE) dirulaguntza izenduna eman zaio urteko lan-programa finantzatzeko (bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta bere etorkizuna bermatu.)

*4. Se ha concedido una subvención nominativa a Euskal Herriko Bertsozale Elkartea (EHBE) para financiar el programa de trabajo anual (cuidar, fomentar, investigar y garantizar el futuro del bertsolarismo).*

Era berean, Mintzola Fundazioari (euskararen ahozkotasunaren esparruan erreferentziazko ikerketa bilgunea) dirulaguntza izenduna eman zaio ohiko jarduerak finantzatzeko.

*Asimismo, se ha concedido una subvención nominativa a la Fundación Mintzola (centro de investigación de referencia en el ámbito de la oralidad del euskera) para financiar las actividades ordinarias.*

5. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteari (EIZIE) eman zaion dirulaguntza izendunaren barruan, orain arte egindako lanari jarraipena eman zaio, eta funtsean, bildumak kudeatzen jarraitu da, aurreko urteetan adosturiko baldintzen arabera.

*5. Dentro de la subvención nominativa concedida a la Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes de Lengua Vasca (EIZIE), se ha dado continuidad al trabajo realizado hasta la fecha, continuando básicamente con la gestión de las colecciones en los términos acordados en años anteriores.*

Itzulpen lehiaketa publikoa egin da. Bertan, 3 lan esleitu ditu epaimahaiak. Lanak 2021 eta 2022an argitaratuko dira.

*Se ha realizado un concurso público de traducción. En ella, el jurado ha adjudicado 3 trabajos que se publicarán en 2021 y 2022.*

Covid-19 pandemiak eraginda, liburuak ezin izan dira aurreikusitako epean kaleratu; 2020an argitaratzekoak diren 2 izenburuetako bat baino ez da kaleratu. Urrezko Biblioteka bildumaren barruan ez da alerik kaleratu, eta aurreikusitako bi tituluak 2021aren hasieran aurkeztuko dira.

*Debido a la pandemia Covid-19, los libros no han podido ser publicados en el plazo previsto. Sólo se ha publicado uno de los 2 títulos a publicar en 2020. Dentro de la colección Urrezko Biblioteka no se han editado ejemplares, y los dos títulos previstos se presentarán a principios de 2021.*

6. Hiztun berriak euskarara hurbiltzeko, bereziki, “Bidaide” eta “Auzoko” programak sustatu dira. “Auzoko” 8 herritan gauzatu da eta “Bidaide” 1.222 taldetan, eta 7.712 mintzalagunek parte hartu dute.

*6. Con el objetivo de acercar los nuevos hablantes al euskera, se han promovido especialmente los programas "Bidaide" y "Auzoko". “Auzoko” se ha llevado a cabo en 8 localidades y "Bidaide" en 1.222 grupos, y han participado 7.712 mintzalagun.*

**14. EUSKARAREN NAZIOARTEKO SUSTAPENA ETA ELEANIZTASUNAREN KUDEAKETAREN ALDEKO KONPROMISOA**

1. Hizkuntzei buruzko nazioarteko harremanak.

a) NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) hizkuntza-aniztasuna sustatzeko sareak, pandemia dela eta, ez du bilerarik egin 2020an. Hala ere, modu birtualean, zenbait eginkizun gauzatu da eta horietako batean, ’Learning and teaching languages during a pandemic (Hizkuntzak ikasi eta irakatsi pandemia garaian)’ webinarrean parte hartu dugu.

b) Kolonbiako Caucan prestakuntza eskaintzen eta nasa-yuwe ikasteko ikasmaterialak sortzen lagundu da, Mondragon Unibertsitateko UNESCO Katedrari emandako dirulaguntza zuzenaren bidez.

c) Atzerriko herrialdetako eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko ez da protokolo berririk adostu.

d) Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren jarraipenari dagokionez, 2020an Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Autonomia eta Toki Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren eskaerari erantzun zaio, Ministro Batzordeak 2019ko abenduaren 11n egindako berehalako ekintzarako Gomendioak betetzeari buruzko bitarteko txostena osatzeko.

Bestalde, Gutunaren zabalkunderako gida euskaratu eta argitaratu da, Eskualdeetako edo Gutxitutako Hizkuntzen Europako Gutuna, Ikasgelako jarduerak izenburupean (https://rm.coe.int/ecrml-educational-toolkit-basque/16809c42f0).

2. Kataluniako Generalitatearekin, Illes Balearseko Gobernuarekin, Galiziako Xuntarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Valentziako komunitatearekin sinatutako lankidetza-akordioen jarraipena egin da.

2020ko otsailaren 20an, Espainiako Estatuko Errealitate Eleaniztunari Saria eman zitzaion Guadi Galego abeslariari, eleaniztasuna sustatzeko egin duen lana aitortzeko. IMMERSION izeneko bere azken lan diskografikoan Iberiar Penintsulako zazpi hizkuntzatan (euskara, galiziera, katalana eta gaztelania, aranera, asturiera eta portugesa) abestutako abestiak bildu ditu, eta erkidego ezberdinetako artisten kolaborazioak ditu. Erabakia aho batez hartu zen, Hizkuntza Politikari buruzko Lankidetza Protokoloaren Jarraipen Batzordeak egin zuen bileran, 2019ko azaroaren 20an, Bilbon.

***14. PROMOCIÓN INTERNACIONAL DEL EUSKERA Y COMPROMISO POR LA GESTIÓN DEL PLURILINGÜISMO***

*1. Relaciones internacionales sobre lenguas.*

*a) La red para la Promoción de la Diversidad Lingüística NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) no se ha reunido en 2020 debido a la pandemia. Sin embargo, ha llevado a cabo algunas actividades virtuales. Así, hemos participado en la webinar 'Learning and teaching languages during a pandemic (Aprender y enseñar lenguas durante una pandemia)'.*

*b) Se ha colaborado en la oferta de formación y en la creación de materiales didácticos para el aprendizaje del nasa-yuwe en el Cauca colombiano, mediante una subvención directa concedida a la Cátedra UNESCO de Mondragón Unibertsitatea.*

*c) No se han acordado nuevos protocolos para la revitalizar las lenguas minorizadas en los países extranjeros.*

*d) En cuanto al seguimiento de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, en 2020 se ha dado respuesta a la solicitud de la Dirección General de Cooperación Autonómica y Local del Ministerio de Política Territorial y Función Pública, al objeto de completar el informe intermedio relativo al cumplimiento de las Recomendaciones de acción inmediata efectuadas por el Comité de Ministros el 11 de diciembre de 2019.*

*Por otra parte, se ha traducido al euskera y se ha publicado el documento Carta Europea de las Lenguas Regionales y Minoritarias, Actividades de clase (https://rm.coe.int/ecrml-educational-toolkit-basque/16809c42f0).*

*2. Se ha realizado el seguimiento de los acuerdos de colaboración firmados con la Generalitat de Catalunya, Gobierno de Illes Balears, la Xunta de Galicia, el Gobierno de Navarra y la Comunidad de Valencia en los ejercicios anteriores.*

*El 20 de febrero de 2020, se entregó a la artista Guadi Galego el Premio a la Promoción de la Realidad Plurilingüe del Estado Español, para reconocer su labor en favor de la promoción del plurilingüismo a través de su último trabajo discográfico, IMMERSION, que incorpora canciones cantadas en siete lenguas de la Península Ibérica (euskera, gallego, catalán, castellano, aranés, asturiano y portugués) y que cuenta con colaboraciones de artistas de las diferentes comunidades. La decisión fue adoptada por unanimidad en una reunión celebrada en Bilbao, el 20 de noviembre de 2019, por los integrantes de la Comisión de Seguimiento del Protocolo de Colaboración en materia de política lingüística.*